- \_Barne funtzionamendu hobea, bi blokeak lotuta egonik.

- \_Itxiegia itsasadarrera agian?
- \_Alineazioei gehiegi atzikituta hau ere; plataformak gutxi ar-nastu.


12



- \_Espazio libre publiko jarraia.
- \_Ikuspegi aniztasuna.
- \_Barruan komunikazio espazioen optimizazioa.
- \_Bateratasuna.

- \_Plantan hain gutxi okupatuta, altueran gehiegi haziko da, inguruko eraikinen proportzioei gehiegi erasotuz.
- \_Espazio publikoa kudeatzeko arazoak sor daitezke.





## ... ondorioak

### FRAGMENTAZIOA

Programa heterogeneoari erantzuna emateko, pieza handi baten ordean, zati txikiagotan zatitzea egokiago jo da. Era honetan, ikuspegiak anitzagoak dira eta espazioaren kontrola, handiagoa.

### HIERARKIA

Fragmentazioaren barnean, blokeetako batek besteen gainetik aginduko du, bai altuera handiagoaren bidez, bai beste blokeen kokapenak hartara emango duelako.

### ESPAZIO LIBRE JARRAIA

Fragmentazioa gauzatuko da, baina plataforman zeharreko ibilbidea oztopatu edo eten gabe, espazio libre publiko jarraia sortuz, ibilbidean zehar aldatzen doana.

### KALE DIAGONALAREKIN ERLAZIOA


Multzoaren sarrera nagusia Erandioko erdigunetik hurbilago egongo da eta plataformaren aurreko kaleari jarraitasuna edo irtenbidea emango zaio. Hala ere, Astrabuduatik ere multzora zuzenean sartu ahal izango da.

### IKUSPEGI ANITZAK

Plataforman zeharreko ibilbidean itsasadarraren hainbat ikuspuntu ezberdin ahalbidetuko dira.




# □ TIPOLOGIEI BURUZKO HAUSNARKETA



## TIPOLOGIA INDUSTRIALA

Eraikinak horizontalean hedatzen dira, bertikalean beharrez, kalearekin, garraioekin, karga eta deskargarako harreman zuzena eta erraza behar dutelako. Funtzionaltasuna prioritatea da.



## ETXEBIZITZA TIPOLOGIA

Proporzio bertikalak eta horizontalak berdintsuagoak direla aurkitzen dugu tipologia "nobleago" honetan. Kalearekin harreman zuzena ez da hain garrantzitsua hemen eta, funtzionaltasuna ez ezik, beste faktore batzuk ere aintzat hartzen dira: bizigarritasuna, estetika, konforta, bistak...

Proiektua diseinatzekoan, aurkitzen den lekuan ikus daitezkeen bi tipologiak identifikatu dira: tipologia industrialak eta etxebizitza tipologia. Hauek bere isla izan dute EOAE proiektua burutzekoan, fragmentazioak bi tipologia hauen oihartzuna duten eraikin ezberdinak integratzea ahalbidetu baitu, multzoa bere inguruarekin elkarriketan ipiniz.

Tipologia hauen PROPORTZIOAK kontuan izan dira EOAEren hiru blokeak diseinatzekoan, etxebizitza tipologia tipologia dozenteara asimilatu delarik. Izan ere, bi hauen arteko antzekotasunak nabariak dira eta multzo osoaren erabilerririk nobleena dela esan daiteke.

Beste alde batetik, bere barne tailerrak eta olatu andela hartzen duen blokea eta hangarea, ordea, erabilera industrialak dira, nahiz eta eskolaren parte izan, eta horregatik, inguruko tipologia industrialean bezala, horizontaltasuna da nagusi beraietan.

Beraz, EOAEren kontzepzioan erabilera zuzenean lotuta dago eraikinaren formarekin eta proportzioarekin, logikari eta funtzionaltasunari erantzunez.






# PROIEKTUAREN KONFIGURAZIOA OINEAN

Proiektatutako blokeak hiru dira, plataforman inguruari erantzunez kokatuak: tipologia industrialari erantzuten dioten bi blokeak, tailerrak eta hangarea, alegia, elkarri eta errepidearen beste aldean dagoen industriari aurpegia emanez; etxebizitza tipologiari gerturatzen zaion eraikina, nagusia eta altuena, ordea, errepidearen bestaldeko etxebizitza eta hezkuntza eraikinekin elkarriketan dago, distantzia txikia baitago fisikoki beraien artean eta baita proportzioen aldetik ere.

Beste alde batetik, espazio publikoa hedatzen da sortutako hiru bloke ezberdinen artean, plataformarekiko diagonalean luzatzen den kalekka aintzat hartuta. Horrez gain, hiru eraikinek ardatz longitudinalaren arabera antolatzen dira: ardatz ezkutu horretan zehar sarrera guztiak kokatzen dira eta ardatz antolatzaile horren bukaeran eraikin nagusiak multzo osoa agintzen du.






programa

EO  
AE




# PROGRAMA SINPLIFIKATUA, TEORIKOA



1110 m<sup>2</sup>

I K A S I


- 250 5 ikasgela
- 100 CAD gela
- 250 Bulegoak eta 2 bilera gela
- 50 Administrazio bulegoa
- 200 Aula magna
- 180 Ataria eta atezaintza
- 80 Maketen erakusketarako gunea



690 m<sup>2</sup>

I K U S I

- Maketa tailerrak:
- 150 > Aroztegia, mozketa tresnak, fresatzaileak...
  - 100 > Poliester, epoxi, karbono zuntza...
  - 80 > 3D inprimagailuak
  - 360 60 x 4 m-ko olatu andela edukiko duen nabea



500 m<sup>2</sup>

E G I N

- 500 1:1 eskalako prototipoak eraikitzeko hangarea




2300 m<sup>2</sup>



# PROGRAMA SOLAIRUKA GARATUA

ERABILERA	AZALERA (m2)	AZALERA BLOKEKA (m2)
1 Harrera	161,2	
2 Sarrera ataria	16,6	
3 Atezaintza	16	
4 Eskaileren ataria	8	
5 Kontagailuen gela	18,27	
6 Eskailerak	23,4	
7 Gela	48	
8 Gela	47,9	
9 Idazkaritza	27,85	
10 Idazkaritzaren itxarongunea	20,9	
11 Idazkari akademikoaren bulegoa	14,9	
12 Zuzendariaren bulegoa	27	
13 Azpizuzendarien bulegoa	22,55	
14 Itxarongunea	20,57	
15 Emakumezkoen komuna	9,9	
16 Desgaituen komuna	6	
17 Gizonezkoen komuna	6,3	
18 Zirkulazio eta egote espazioa	97,5	
19 Eskailerak	31,4	
20 Irakasleen gela	50,2	
21 Irakasleen bulego 1	14,9	
22 Irakasleen bulego 2	27	
23 Irakasleen bulego 3	22,55	
24 CAD gela	99,11	
25 Areto nagusia	210,27	
26 Terraza	24,3	
27 Zirkulazio eta egote espazioa	72,24	
28 Atari babestua	32	1889
29 Sarrera ataria	25,28	
30 Olatu andelaren gela	548	
31 Sarrera ataria	32	
32 Eskailerak	28,5	
33 3D imprimigailuen tailerra	112,5	
34 Biltegia	23,8	
35 Aldagela komun 1	25,9	
36 Aldagela komun 2	25,9	
37 Aroztegi tailerra	132,9	
38 Beste materialen tailerra	101,17	
39 Atari babestua	26,8	1912,08
40 Soto teknikoa	573,28	
41 Hangarea	526,74	526,74
		4327,82









arkitektura planoak

EO  
AE




































































soto oina












UR BEHERA EKINOZIALA



























UR GORA EKINOZIALA

UR BEHERA EKINOZIALA








UR GORA EKINOZIALA



UR BEHERA EKINOZIALA




arkitektura planoak

EO  
AE 145










UR GORA EKINOZIALA


UR BEHERA EKINOZIALA



arkitektura planoak

EO  
AE 149







1/150  
100 300 800

arkitektura planoak








UR GORA EKINOZIALA



UR BEHERA EKINOZIALA





1/150  
arkitektura planoak

EO  
AE 153






















UR GORA EKINOZIALA









1/150  
100 300 800  
arkitektura planoak

EO  
AE 165



# deskribapen tekniko

egitura

EO  
AE






# □ AURREKARIAK. KONTESTUA

Burututako proiekturako aukeratutako egitura sistema azaldu baino lehen, bereziki garrantzitsua da bere kokagunean jada aurkitzen den egituraren inguruan arreta deitzea. Izan ere, ontzigtza eskola bere egitura propioa duen antzinako plataforma baten gainean kokatzen da. Ditxo hau, 1919tik 60. hamarkadara arte eraikitzen eta eraldatzen aritu ziren, bere aurrean funtzionamenduan zegoen ontziola desagertuari zerbitzu zezan. Izan ere, hainbeste urteetan zehar osatua izanik, bere barnean hainbat interbentzio eta eranspen ezberdin daudela ikus daiteke, beraien artean armonia gehiago edo gutxiagorekin elkarlanean (honen ikerketa prozesua lehen liburuan azaltzen da).

Oro har, esan daiteke plataforma hau bi atal nagusitan banatze dela, hormigoi armatuzko portikoez osatutako aurrealdea, 1957. urtean burututako interbentzio bateratzailer bati esker, batik bat, eta betelanez osatutako atala, kontrahormez eutsia, memoria historikoetan irakurrita bezala, materiala aurrezteko (hormigoi armatuzko portikoeekin konparatuta).

Aipatutako hormigoi armatuzko portikoen frentea hau, beraz, betelanaren aldean, atalik indartsuena da; gaur egun ikus daitezke oraindik garabiari laguntzeko herdoildutako errailak. Horrez gain, frentea hau interbentzio bakarraren emaitza izanda, arrazionalki burututakoa da: 2'5 m-ko tartea dute zutabeek beraien artean, bere luzera handia dela eta tarteko dilatazio juntak gehituz, aurretik zeuden egiturei hobeto egokitzeko era azkarrean kokatuak.

Betelanei dagokionez, ordea, garai hartan ez zeuden hain kontrolatuak; beraz, material pobrez egin ziren. Izan ere, gaur egun, ezkerreko muturrean lur-jausia ikus daiteke, orain dela hainbat urte jazotakoa. Gainerako azalera, lauzak izugarrizko asentu diferentzialak jasan ditu, betelaneen kalitate txarraren erakusle, arrakalak nagusi direlarik.





# □ DISEINUAREN HASTAPENAK. ESKEMA OROKORRAK


Proiektuaren oinarria izango denaren inguruan hausnarketa egin ostean, hasiera- hasieratik irizpide eta erabaki basiko batzuk hartu ziren, diseinua garatu aurretik:

**\_EGITURA METALIKOA:** Esan bezala, plataforma urteetan zehar eraikitakoa da, XX. mendeko aurrerapen egituraz ezberdinak bere baitan jasotzen direlarik. Eranspenez eginda egonik, ondorio naturala dirudi interbentzio honek, beste gehiketa bezala ulertua, egitura arloan emandako hurrengo aurrerapausuaren erakusle izatea. Harlangaitzezko hormen eta hormigoizko portikoen ostean, egitura metalikoa gehi dakioke eremu honen ekuazioari, gaurkotasunaren isla.


**\_OPTIMIZAZIOA:** Egitura berria aurrekoarekin elkarlanean eta sintonian jartzeko nahia eta beharra ikusi zen hasieratik. Hala eta guztiz ere, honek ez du esan nahi aurretik dagoen egitura zuzen-zuzenean errepikatu edo extruitu behar dela, gaur egun egituren optimizazioaren alde emandako aurrerapausuak aintzat hartuta proiektatu nahi izan delako. Izan ere, plataforma eraiki zen garaietatik hona tartek handitu dira eta materialaren aprobetxamendua asko hobetu da; era honetan, diseinatutako egitura berria aurrekoari lotuta egongo da, bere oihartzuna izango du, baina gaurkotasunaren barnean eta teknikaren aurrerakuntzak jasoz, egitura sistema metalikoari dagozkien neurriak eta tartek barneratuta ere bai.

**\_KAIOLA:** Gauzak horrela, egitura sistema honek kaiola antzeko entramatua osatuko du, plataformaren 3d-ko gehikuntza gisa, zabalera ordez, altueran haziz. Entramatu hau norabide bakarreko forjatuz osatuko da, kargen distribuzioarako.

**\_SINPLETASUNA, ARGITASUNA ETA FUNTZIONALTASUNA:** Hauek dira hasieratik kontuan izandako irizpideak, eskolaren erabileraren onurarako eta baita bere kokapenaren izpiritu historikoatik zuzenean edanda. Eraikin eta egitura "zintzoa" proiektatu nahi da, ikusten dena da, nahasmenatik ihesi eginez. Eta zeregin honetan egiturak zeresan handia du, bere presentzia izugarria izango baita, bai barrutik bai kanpotik.









# deskribapen tekniko a

eraikuntza

EO  
AE





# EGITURA

Egitura arestian azaldu denez, ez da hemen errepikatuko, soilik bere babesari aipamena egin nahi zaio hemen:

- \_Alde batetik, R90 erresistentzia lortzeko PROMAPAIN SC3 margo intumeszentea.
- \_Bestetik, HEMPEL margoa itsasertzan egoteagatik suertatzen den korrosioari aurka egiteko.

## CATEGORÍA DE CORROSIVIDAD C4

### SISTEMAS DE PINTURA HEMPEL

#### Para estructuras de acero en áreas abiertas

Ejemplos de sistemas de muestra correspondientes a la Categoría de corrosividad C4\*

Vida estimada	Número de Sistema	Tipo de Pintura	Sistema de Pintura Hempel	Espesor (micras)
0-5 Años	1	BA Acrílico	2x HEMUCRYL PRIMER HB 18032	140
		BA Acrílico	1x HEMUCRYL ENAMEL HB 58030	60
	<b>Espesor total</b>			<b>200</b>
2	2	BD Epoxy	2x HEMPADUR MASTIC 45880/1	200
		<b>Espesor total</b>		

Vida estimada	Número de Sistema	Tipo de Pintura	Sistema de Pintura Hempel	Espesor (micras)	
5-15 Años	1	BD Epoxy	2x HEMPADUR 45880/1	180	
		BD Poliuretano	1x HEMPATHANE HS 55610	60	
	<b>Espesor total</b>			<b>240</b>	
	2	2	BA Epoxy	2x HEMUDUR 18500	180
			BA Poliuretano	1x HEMUTHANE ENAMEL 58510	60
	<b>Espesor total</b>			<b>240</b>	
	3	3	BD Epoxy Zinc	1x HEMPADUR ZINC 17360	60
			BD Epoxy	1x HEMPADUR 45880/1	80
			BD Poliuretano	1x HEMPATHANE HS 55610	60
	<b>Espesor total</b>			<b>200</b>	
	4	4	BA Epoxy Zinc	1x HEMUDUR ZINC 18560	60
			BD Epoxy	1x HEMUDUR 18500	80
BD Poliuretano			1x HEMUTHANE ENAMEL 58510	60	
<b>Espesor total</b>			<b>200</b>		

Para obtener más información o recomendaciones sobre otros productos químicos para recubrimientos de tanques (tank linings), póngase en contacto con su oficina local de Hempel.

Vida estimada	Número de Sistema	Tipo de Pintura	Sistema de Pintura Hempel	Espesor (micras)	
> 15 Años	1	BD Epoxy	2x HEMPADUR 45880/1	220	
		BD Poliuretano	1x HEMPATHANE HS 55610	60	
	<b>Espesor total</b>			<b>280</b>	
	2	2	BD Epoxy Zinc	1x HEMPADUR ZINC 17360	60
			BD Epoxy	1x HEMPADUR 45880/1	120
			BD Poliuretano	1x HEMPATHANE HS 55610	60
	<b>Espesor total</b>			<b>240</b>	
	3	3	BA Epoxy Zinc	1x HEMUDUR ZINC 18560	60
			BA Epoxy	2x HEMUDUR 18500	120
			BA Poliuretano	1x HEMUTHANE ENAMEL 58510	60
	<b>Espesor total</b>			<b>240</b>	
	4	4	BD Silicato de Zinc	1x HEMPEL's GALVOSIL 15700	60
BD Epoxy			1x HEMPADUR 45880/1	120	
BD Poliuretano			1x HEMPATHANE HS 55610	60	
<b>Espesor total</b>			<b>240</b>		

\* En lugares donde el chorreado como preparación secundaria de la superficie no es posible después de la producción, una opción es usar acero al que previamente se le ha aplicado un shopprimer. Es preferible usar Shopprimers de base silicato de zinc, por ejemplo Shopprimer ZS 15890 ó 15820 de Hempel - en especial para su posterior repintado con pinturas que contienen zinc - los shopprimers de base epoxy, por ejemplo los shopprimers 15260 ó 16590 de Hempel se pueden también usar en caso de posterior repintado con pintura sin zinc. Consulte con Hempel las directrices a seguir para la elección óptima de shopprimer y la necesidad de preparación secundaria de la superficie.

BD = Base Disolvente BA = Base Agua

**HEMPEL**

28

**Promat**

Datos Técnicos de los Productos

## 22. Pintura intumescente PROMAPAIN®-SC3



### Descripción:

PROMAPAIN®-SC3 es una pintura intumescente al agua de altas prestaciones para protección de estructuras metálicas, formulada a base de copolímeros acrílicos para protección de estructuras metálicas tanto con perfiles en I y H como para perfiles huecos. Fabricada bajo un sistema de calidad certificado ISO 9001.

### Aspecto:

Pintura tixotrópica de color blanco.

### Características principales:

Pintura intumescente de altas prestaciones que en caso de incendio crea una espuma aislante protectora especialmente estable. Apta para uso en interior y en exterior en semiexposición con protección. Ensayada para perfiles de todo tipo, incluidos los perfiles metálicos de sección hueca.

### Usos:

La pintura PROMAPAIN®-SC3 está diseñada para proporcionar resistencias al fuego de hasta 180 minutos en estructura metálica: Cerchas, vigas, pilares etc., incluyendo perfiles huecos.


### DATOS TÉCNICOS

Color	Blanco
-------	--------

# ZIMENTAZIOA

Zimentazioari dagokionez, eraikinaren kokalekua ikusita, lurra betelana izanda, pilotatzea ezin bestekoa izango dela argi dago. Horregatik, entzepatu eta habe riostren bidez osatutako azpiegitura egin beharko da, eta solera izan beharrean, forjatu sanitarioa bermatuko da bere gainean.

Bestalde, uraren presentzia hain handia izanda, hezetasunen arriskua ahalik eta gehien murrizteko asmoz, forjatu sanitarioaren azpian aire-ganbera sortzea erabaki da, suerta daitezkeen hezetasun sarrerek lehor daitezten eraikinera heldu baino lehenago.







## SOLAIRUAK

Hautatuko forjatu sistema aurretik deskribatutako egiturarekin oso estu lotuta dago; izan ere, sortutako kaiola metalikoak forjatu arina erabiltzea ahalbidetu du, itxura industrialari betiere konfiantza izanik. Horregatik, txapa kolaborantezko forjatu sistema aukeratu da euskarri elementu gisa. Honen gainean, solairu guztietan eskema bera errepikatzen da: isolamendu kapa, nondik beharrezkoa den tokietan instalakuntzen tuturen batzuk bideratu ahal diren, mortero kapa eta baldosazko akabera, funtzionaltasunaren eta garbitasunaren alde eginez.


Lurrarekin kontaktuan, ordea, eremuko lurren ezaugarri mekaniko eskasak ikusita, solerak bete-behar egiturala ez luke beteko. Horregatik, gangatitez eta habexka aurrefabrikatuez ostautako forjatu sanitarioa hautatu da behe solairurako.



## ESTALKIA


Estalkia laua da eta bitan zatituta dago, altuera ezberdinak sortuz azken solairuan: albo batetik, garaiera handiena duen auditorioa eta, bestetik, zirkulazio espazioa eta terraza estalia.

Estalkian forjatuetako elementu eusle bera erabiltzen da, txapa kolaborantezko forjatua, alegia, eta bere gainean estalki lau inbertituari dagozkien kapak: maldak emateko morteroa, lamina iragazgaitza, isolamendu zurrunaz babestua, eta legarrezko akabera, estalki ez ibilgarria bairita. Garaiera gutxieneko estalkia aire girotuaren aparagailuetarako erreserbatua dago, beraz, estalki teknika dela esan daiteke.






Itxitura oso bereizgarria da proiektu honetan, egituran eutsitako beirate erraldoiak direlako, batik bat. Beraz, beiraren hautaketa oso garrantzitsua izan da, jasangarritasuna eta konforta bermatzeko. Horregatik, eguzki kontrola eta babes termikoa duen beira mota hautatu da, argoizko aire-ganberadun beira bikoitza, alegia. Arotzeria aluminiozkoa da, zubi termikoen apurketarekin.



Producto	Color	Luz visible				Energía solar			Factor solar (g EN 410)	Coeficiente de sombra gEN/0,87	Valor U (EN 673) Argón 90% [W/m <sup>2</sup> K]	Selectividad	Templable / Curvable	Decapado de bordes	Serigrafiable
		Transmisión [%]	Reflexión exterior [%]	Reflexión interior [%]	Índice de variación de color	Transmisión directa [%]	Reflexión exterior [%]	Absorción [%]							
<b>SunGuard® High Performance Control solar y aislamiento térmico en un solo vidrio</b>															
<b>Doble acristalamiento 6-16-4, capa en cara #2</b>															
HP LIGHT BLUE 62/52	neutro azulado	62	16	12	96	48	17	35	52	0,59	1,5	1,19	Si*	No*	Si*
HP NEUTRAL 60/40**	neutro	60	25	20	93	38	35	27	40	0,46	1,1	1,50	Si*	No*	Si*
HP NEUTRAL 52/41	neutro azulado	52	18	11	93	38	21	41	41	0,48	1,4	1,27	Si*	No*	Si*
HP NEUTRAL 50/32	neutro	50	23	22	95	29	37	34	32	0,37	1,1	1,56	Si*	No*	Si*
HP SILVER 43/31	plata	43	32	16	95	29	36	35	31	0,36	1,2	1,39	Si*	No*	Si*
HP NEUTRAL 41/33	gris azulado	41	22	12	91	29	25	46	33	0,38	1,4	1,24	Si*	No*	Si*
HP ROYAL BLUE 41/29	azul intenso	41	26	32	94	26	27	47	29	0,34	1,1	1,41	Si*	No*	Si*
HP AMBER 41/29	cobre	41	25	17	87	27	36	37	29	0,34	1,1	1,41	Si*	No*	Si*
HP BRIGHT GREEN 40/29	verde	40	37	24	96	26	24	50	29	0,33	1,1	1,38	Si*	No*	Si*
HP BRONZE 40/27	bronce	40	15	26	90	24	27	49	27	0,31	1,1	1,48	Si*	No*	Si*
HP SILVER 35/26	plata	35	44	23	98	24	43	33	26	0,30	1,2	1,35	Si*	No*	Si*

## eguzki babeserako elementuak



Beiraren konposizio bereziaz gain, eguzki babeserako beste elementu bi gehitu dira: aluminiozko lama horizontalak eta beirateen garbiketarako pasarela teknika.

Lama metalikoak beiratearen goialdean baino ez dira kokatu, itzala lortzeko, baina aldi berean bistak oztopatu gabe. Horrez gain, kanpoa eta barruaren arteko filtro gisa ere funtzionatzen dute, intimitate puntua eskainiz eraikinaren barnealdeari.

## mantenu plana




Beirateen kanpoko garbiketa laguntzeko elementua integratu da eraikinaren diseinuan: perimetro osoan hedatzen den pasarela metaliko arina, solairuka errepikatzen dena.

Mantenurako elementua izateaz gain, fatxada-aren aberastasunari kontribuitzen du, beste argi-itzal jokoak gehituz.



## BARNE BANAKETAK

Egitura metalikoa eta beirazko itxitura ikusita, esan daiteke proiektuaren izpiritua obra lehorrera jotzen duela. Honi jarraituz, igetsu laminatuzko tabikeria proiektatu da, eskaintzen dituen aukera zabalez eta akabera finez oharrarazita. Tabikeen barneko isolamenduarekin jokatu da eskakizun ezberdinak bete ahal izateko.



Egurra erabili da baita balastrada egiteko, pa-bimentuaren luzapen gisa eta pisudunaren sentsazioa azpimarratuz. Listoiak horizontalki kokatzen dira horizontaltasunaren alde.



## ALTZAIRUAK


Bankuek itxura monolitikoa dute, linea sinpledu-nak. Escofet enpresarako Patxi Magadok diseinatutako Trasluz bankua hautatu da proiekturako, egurrezko akaberarekin eta luminaria integratua-rekin.



## URBANIZAZIOA


Proiekturako hautatutako zoladura egurrezkoa da, elondo egur tratatuzkoa, hain zuzen. Izan ere, zur mota honen erresistentzia ezaguna da, eta kanpo baldintzeen aurka portaera oso ona du. Horrez gain, bere koloreagatik ere aukeratu da.

Bere instalakuntzari dagokionez, egurrezko arrastrelen gainean bermatutako tratatutako listoiak kokatutako dira. Hauen oinarri bezala, urbanizazioetan ohikoak diren oinarria (hormigoizko lauz) eta azpioinarria (legarra) joango dira. Halaber, plataformaren egitura portikatuaren gainean kokatzen den puntuetan, egitura bera erabili da arrastrelen berme gisa, hutsarteak handiegia ez baitira.



## ARGIZTAPENA

Eraikinak eta beraien egitura azpimarratu nahi izan dira, baita gauz ere; horregatik, espazio publikoko argiztapena bertan integratzea erabaki da, hain zuzen, eraikinen kanpoan agertzen den egituran, HEB-etan. Horiei itsatsitako LED lanpara sinpleez lortzen da iluminazioa, eta baita plataformaren azpiko egituran, honi portagonismoa emanez ere bai.








# deskribapen tekniko a

instalakuntzak


EO  
AE



# □ SUTEEN AURKAKO INSTALAKUNTZA




lehen solairua




behe solairua






hirugarren solairua



leugarren solairua



bigarren solairua

BARNEKO HEDAPENA (SID)

- ▭ Sektore muga
- ▭ Eskailera babestua
- ▭ Atari babestua
- ▭ Arrisku berezi baxuko lokala

1/400  
 200 600 1600  
 instalakuntzak

Suteen aurkako instalakuntza egiteko CTE-DB-SI legedia jarraitu da. Esan beharra dago, lehenik eta behin, instalakuntza honek diseinuan eragin handia duela, eta beraz, hasieratik hartu zen kontuan.


Programa hiru blokeetan banatuta, sektoreetan banatzea oso erraza izan da, bloke bakoitzak hezkuntza erabilerako sektorea osatzen baitu. Beraz, hiru sektore daude totalen.




Tailerren blokea eta hangarea lotuta daudenez, sektore ezberdinak izanez, beraien arteko komunikazioa atari babestuaren bitartez gauzatu da, eskailera babestuekin batera.

Bloke nagusian, berriz, eskailera babestua ere behar izan da, ebakuazio altuerak horrela eskatzen duelarik. Tailerren blokean bezala, izkina batean kokatu da, formalki komunikazio bertikala polarizatuz, plantaren eskeman argitasuna bilatuz eta baita kanpotik eskailera antzemateko. Eskailerek bi kasutan atal banandu gisa aurkezten dira, egitura hutsarte osoa barne hartuz, goitik behera.



# KLIMATIZAZIOA



-  Deribazio kutxa
-  Likido hozgarriaren linea
-  FXUQ100A "DAIKIN" Aire girotuzko barne unitatea  
Bistan, kasette erakoa  
Hozteko ahalmen nominala, 112 kW  
Berotzeko ahalmen nominala, 125 kW

Beirate handiak dituen eraikina izanik, urtaro ezberdinetan konfort maila altuagoa ziurtatzeko, aire girotuzko instalazioa egitea erabaki da, kontrol termikoa eta higrotermikoa lortzeko asmoz.


Aire girotuaren instalazioa likido hozgarriaren emari aldakorreko sistemaz gauzatu da, gaur egun gero eta gehiago erabiltzen ari dena, batik bat, bulego eraikinetan, hoteletan... Sistema honen diseinua erraza da, moldagarritasuna eskaintzen du, eraginkortasun energetiko altua du, mantenu gutxi...





Instalazio mota honek kanpoko unitatea du, proiektu honen kasuan, estalkian aurkitzen dena. Hemendik tutu txikien bidez likido hozgarria bidaltzen da gela bakoitzeko barneko unitateetara. Eraikinean bistakoak dira unitate hauek, sabai faltsurik ez dagoelako.





# AIREZTAPENA








-  Bero berreskuratzailea
-  Bultzada saretak
-  Estrakzio saretak
-  Konduktu laukizuzena

Beste alde batetik, aire berriztapena eta ekstrakzioa instalazio paraleloaren bidez burutzen da, estalkian aurkitzen diren bero berreskuratzaileetatik ateratzen diren konduktuen bidez. Bi sare daude, ekstrakzioa eta bultzadakoa, aire berria daramana. Konduktuen barneko eta eraikinaren espazioen arteko aire trukaketa gertatzeko, rejilak kokatzen dira konduktuetan zehar.

Bero berreskuratzaileak erabiliz, energiaren aurrezpenari laguntzen zaio. Berreskuratzaileen errendimendu termikoa handia da, %55ekoa, eta errendimendu higrometrikoa, berriz, %65ekoa.





-  Bero berreskuratzailea
-  Bultzada saretak
-  Estrakzio saretak
-  Konduktu laukizuzena



Eraikinaren ziurtagiri energetikoa HULC Herramienta Unificada Lider Calener tresnaren bidez aterata, legeak arautzen duen bezala:

"De acuerdo con la Nota informativa sobre Procedimiento para la Certificación de Eficiencia Energética, desde el 14 de enero de 2016, sólo serán admitidos por los Registros de las Comunidades Autónomas los certificados de eficiencia energética realizados con la versión 20151113 (0.9.1431.1016) de la Herramienta Unificada LIDER-CALENER (HULC) o posterior. Igualmente, desde el 14 de enero de 2016, las verificaciones de CTE deberán realizarse con la versión 0.9.1431.1016 o posterior de la Herramienta Unificada, de acuerdo con esta Nota informativa sobre los factores de conversión de energía final a primaria."

## CERTIFICADO DE EFICIENCIA ENERGÉTICA DE EDIFICIOS

### IDENTIFICACIÓN DEL EDIFICIO O DE LA PARTE QUE SE CERTIFICA:

Nombre del edificio	Ontzigtza Arkitektura Eskola Erandion		
Dirección	C/ - - - - -		
Municipio	Erandio	Código Postal	-
Provincia	Editar en datos	Comunidad Autónoma	País Vasco
Zona climática	C1	Año construcción	-
Normativa vigente (construcción / rehabilitación)	- Seleccione de la lista -		
Referencia/s catastral/es	ninguno		


### Tipo de edificio o parte del edificio que se certifica:

<input checked="" type="checkbox"/> Edificio de nueva construcción	<input type="checkbox"/> Edificio Existente
<input type="checkbox"/> Vivienda <input type="checkbox"/> Unifamiliar <input type="checkbox"/> Bloque <input type="checkbox"/> Bloque completo <input type="checkbox"/> Vivienda individual	<input checked="" type="checkbox"/> Terciario <input checked="" type="checkbox"/> Edificio completo <input type="checkbox"/> Local

### DATOS DEL TÉCNICO CERTIFICADOR:

Nombre y Apellidos	Nombres Apellido1 Apellido2	NIF/NIE	CIF
Razón social	Razón social	NIF	-
Domicilio	Nombre calle - - - - -		
Municipio	Erandio	Código Postal	Codigo postal
Provincia	- Seleccione de la lista -	Comunidad Autónoma	País Vasco
e-mail:	-	Teléfono	-
Titulación habilitante según normativa vigente	-		
Procedimiento reconocido de calificación energética utilizado y versión:	HU CTE-HE y CEE Versión 0.9.1433.1016, de fecha 21-dic-2015		

### CALIFICACIÓN ENERGÉTICA OBTENIDA:



El técnico abajo firmante declara responsablemente que ha realizado la certificación energética del edificio o de la parte que se certifica de acuerdo con el procedimiento establecido por la normativa vigente y que son ciertos los datos que figuran en el presente documento, y sus anexos:

Fecha 18/04/2016

Firma del técnico certificador:

- Anexo I.** Descripción de las características energéticas del edificio.
- Anexo II.** Calificación energética del edificio.
- Anexo III.** Recomendaciones para la mejora de la eficiencia energética.
- Anexo IV.** Pruebas, comprobaciones e inspecciones realizadas por el técnico certificador.

Registro del Organismo Territorial Competente:



## UR HORNIKUNTZA ETA SANEAMENDUA

Ur hornikuntzari dagokionez, landutako P gune honetan solairu guztietan aurkitzen diren komunak baino ez dira zerbitzatu behar, hezkuntza erabilerari erantzuna emateko. Zoru erradiatzaileak, sukaldariak... proiektatu ez direnez, ur bero sanitarioaren hornikuntza ez egitea erabaki da, beharrezkoa ez delako eta eraginkortasun energetikoari begira baita ere.

Beraz, ur hotzez baino ez da hornitu eraikina. Honen eskema oso garbia eta uniforme da, proiektu faseetik jada komunak bata bestearen gainean kokatu baitira helburu horrekin. Patiniloa osatu da komunaren pareta oso batean zehar, nondik ur hotzaren hornikuntza egiteko tutueria pasatuko den.

Aipagarria da azken solairuan komunetako bat terrazaz ordezkatu dela, eta beraz, berari dagokion tutu bertikala azken solairura arte igo beharra ez dago.

Ur hotzez hornitu behar diren elementuak komun orotan aurki daitezkeenak baino ez dira: konketak, komunak eta pixalekuak.


Saneamenduari dagokionez, landutako P gune honetan solairu guztietan aurkitzen diren komunetan sortzen diren ur beltzak jasotzeaz gain, euri uren ebakuazioa ere gauzatu behar da, baina hori hurrengo orrialdean jorratuko da.

Ur beltzak komunetan baino ez dira sortuko, eta hauen eskema oso garbia eta uniforme da, proiektu faseetik jada komunak bata bestearen gainean kokatu baitira helburu horrekin, saneamendua ahalik eta sinpleen eta azkarren kanporatzearena, alegia. Haka ere, badago komun sorta bat, solairuka errepikatzen den neskena, hain zuzen, uren ebakuazioa pixka bat zailagoa duena, bajaranterako ibilbidea luzeagoa delako, baina diseinu aldetik ez da egon beste irtenbiderik.


Patiniloa osatu da komunaren pareta oso batean zehar, nondik komunaren saneamenduaren tutueria pasatuko den. Tutueria bertikal honek, legediak eskatzen duen legez, usainetarako irteera izango du estalki teknikoan.

Saneamendu irteera izan behar duten elementuak komun orotan aurki daitezkeenak baino ez dira: konketak, komunak eta pixalekuak.

laugarren solairua



lehen solairua









## □ EURI UREN EBAKUAZIOA

Euri uren ebakuazioari dagokionez, bi atal nagusitan banatu behar da, proiektua bera banatuta agertzen den bezala. Estalkia, izan ere, baita bi nibeletan banatuta ageri da, garaiena, itsasadarrari ematen duen alboran, eta baxuena edo estalki teknikoak, kaletik gertuago dagoena. Bi atal hauen ebakuazioa, beraz, bananduta gauzatuko da, logikoa dirudenez, baina izpiritu bera jarraituz.

Instalazioaren bereizgarri handiena euri uren bajanteen kokapenean datza: eraikinaren kanpotik luzatzen diren zutabeei atxikitzen zaien piez metalikoak, itzala emateaz gain, euri uren tutuak ezkutatzeko funtzioa ere badu.

Estalkiko urak, beraz, zutabe lerro bakoitzaren parera bideratuko dira %15eko maldarekin eta bertan sumidero jarrai baten bidez zutabeetako tutu bakoitzera jautiz joango dira poliki poliki. Kaletik gertuago dagoen aldean, tutu bertikal bakoitzaren azpian dagoen arketetan zehar sare publikora jautiko dira euri urak, baina beste aldean, itsasadarrari ematen dionean, alegia, zuzenean bertara jautiko dira urak, instalazioan aurreztuz.





## □ ELEKTRIZITATEA ETA ILUMINAZIOA

Elektrizitate instalazioak lau elementu ezberdinentzako hornidura suposatzen du:

- \_Iluminazioa
- \_Entxufeak
- \_Suteen detekzio automatikorako zentrala, detektagailu optikoez arduratzen dena
- \_Klimatizaziorako barne eta kanpo unitateak


Elektrizitatearen eskemari dagokionez, koadro orokorra behe solairuan dagoen gela teknikoan kokatu da eta solairuei azpikoadro bana ezarri zaie, korrontearen kudeaketa errazteko eta gehiago zatikatu ahal izateko. Arestian aipatutako lau elementu multzo ezberdinak, logikoa denez, zirkuitu ezberdinen bidez hornitu dira, gehienbat bistan dauden kableen bidez..

Argiztapenari dagokionez, aipagarria da proiektuan sabai faltsua komunetan baino ez dela planteatu, beraz, sabaian instalakuntzen tutueria ikusiko da. Argiztapenak, berriz, hauek bigarren planoan jartzeko funtzioa ere izango du, argiztatzeaz gain. Horregatik, zirkulazio espazio nagusietan eta baita geletan eta bulegoetan ere, eskegitako luminariak aukeratu dira, altuera erabilgarrira, lan planora, gerturatuz eta plano horren argiztapen maila handituz.

Berezitasun gisa har daiteke eraikinaren erdiko franja, non komunak kokatzen diren; haietan sabai faltsua badago, eta beraz, luminariak honi moldatu zaie, enpotratuko modeloa hautatu delarik. Horrez gain, geletara eramaten duten pasabideetan horman kokatutako tipologia erabili da, argizten ez-zuzena lortzeko.

Horrez gain, gelen eta bulegoen aldearen eta zirkulazio espazioaren artean bereizketa egin da bere luminarietan: geletan ea bulegoetan luzetarako modeloa aukeratu den bitartean, zirkulazio espaziorako estetika industrialaren duen luminaria borobila eskegia pentsatu da.

Lanparei dagokionez, argiztapen kalitatea eta aurrezpen energetikoa hoberen lortzen duten LED lanparak aukeratu dira eraikin osorako. Hasierako inbertsioa handiagoa izango bada ere, bere bizitza beste modalitateekin alderatuta askoz ere luzeagoa da eta beste hainbat abantaila ere baditu, denboran hasierako inbertsioa erabat amortizatuko delarik.






# ENERGIA AURREZPENERAKO IRIZPIDEAK

## 1. KLIMATIZAZIOA ETA KONFORT TERMIKO ALDETIK

Klimatizazio instalakuntzan energiaren aurrezpenari arreta jarri zaio bi eratan:

\_Eraikinaren distribuzioari, erabilerei eta funtzionamenduari erreparatu zaio, bi atal oso ezberdinak daudela ikusiz: alde batetik, gune "nobleak" (gelak, bulegoak, auditorioa), eta, bestetik, zirkulazio espazioak, komunak eta eskailerak. Gauzak horrela, erabaki da eskolaren gune "nobleak" soilik hornitzea aire girotuzko aparagailuez, eta gainontzeko espazio zerbitzariak, beste erdian kokatuak, bero berreskuratzaileak eskaintako tenperaturaz eta bi atalen arteko itxituratik filtratzen den airearen baldintzez baliatzea, beharrezkoa izanez gero. Horretarako, geletako barne unitateak pixka bat gaindimentsionatu dira.

\_Horrez gain, nahiz eta diseinu elementu pasiboa ez izan, aipagarria da aire berriztapenerako ezarri diren bero berreskuratzaileak, zeintzuek barnetik hartutako airearen zati bat aprobetxatzen dute aire berriarekin nahastuta, honen tenperatura nahi denari egokitzeko, gastu energetikoa gutxituz.



instalakuntzak

## 2. EGUZKI BABESERAKO FATXADAKO ELEMENTU PASIBOAK

Beste alde batetik, itxitura ia bere osotasunean beirazkoa izanik, bere konposizioari erreparatu zaio, aurrerago azaldu bezala, eguzki babesa integratua duen beira aukeratu delarik, SunGuard High Performance, alegia. Honek beira geruza bikoitza du eta erdian argoizko aire ganbera, portaera termikoa asko hobetuz.

Horrez gain, elementu gehigarriak ere ezarri zaizkio itxiturari, itzalak gehitzeko eta eguzki izpiak filtratzeko. Elementu hauek bi dira: pasarela tekniko metalikoa eta aluminizoko lamak. Era honetan, Eguzkiaren eragina pasiboki eten nahi izan da eta, aldi berean, fatxadari konplexutasuna gehitu, diseinuaren mesederako.

